



2025
Ekintzen
txostena

• **EURORÉGION
EUROESKUALDEA
EURORREGIÓN**

NOUVELLE-AQUITAINE • EUSKADI • NAVARRE
AKITANIA BERRIA • EUSKADI • NAFARROA
NUEVA AQUITAÑA • EUSKADI • NAVARRA



L LET Akitania-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdea
AECT Eurorregión Aquitania-Euskadi-Navarra
GECT Eurorégion Aquitaine-Euskadi-Navarre

Aurkibidea

Sarrera.....	5
--------------	---

1 Euroeskualdeko hiritartasuna7

1.1 Babestutako proiektuak	7
1.1.1 Abian diren proiektuak.....	7
1.1.2 Hautatutako proiektu berriak	8
1.2 Lurralde-dinamizazioa	10
1.2.1 Ikus-entzunezkoak	10
1.2.2 Eleaniztasuna.....	10
1.3 Europako proiektua.....	11
1.3.1 HEZHI.....	11

2 Garapen adimenduna, lehiakorra, inklusiboa eta jasagarria13

2.1 Babestutako proiektuak	13
2.1.1 Abian diren proiektuak.....	13
2.1.2 Hautatutako proiektu berriak	15
2.2 Euroeskualdeko merkataritza Esparru hitzarmena.....	16
2.3 Lankidetza estrategikoak	17
2.3.1 EUROBOOST.....	17
2.3.2 ETESS	17
2.3.3 ICT.....	17
2.4 Lurraldeko dinamizazioa	18
2.4.1 Unibertsitateen arteko lankidetza	18
2.4.2 Euroeskualdeko beka.....	18
2.4.3 Mugaz gaindiko uda ikastaroak.....	18
2.5 Europako proiektua.....	19
2.5.1 LANEAN	19

3 Lurraldearen jasagarritasuna eta kohesioa.....21

3.1 Lurraldearen dinamizazioa	21
3.1.1 Lurraldearen behaketa	21
3.2 Europako proiektuak	22
3.2.1 TRANSFERMUGI	22
3.2.2 Resilient borders.....	22

4 Mugaz gaindiko gobernantza eta euroeskualdearen kudeaketa berritzailea25

5 AFOMEF27

5.1 Lurraldeak eraldatu eta europa hurbiltzen duten proiektuak	27
---	----

6 2021-2027 Plan Estrategikoko adierazleen jarraipena.....31

7 Balantze ekonomikoa33

8 Ekitaldiak eta aurkezpenak35

Sarrera


Europako mugak, aldi berean, tentsio-gune eta aukera-espazio diren une honetan, ekintzarako, esperimentaziorako eta konponbide zehatzetarako lurralde gisa nabarmentzen da Akitania-Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdea. Esparru instituzionala izatetik haratago, **bizitza partekaturako espazio bat da non, egunez egun, mugaz gaindiko lankidetza herritarrentzat erabilgarria, ikusgarria eta esanguratsua den** proiektu bihurtzen baita. Iragandako urteak argi erakusten du anbizio hori. Trantsizio sakonek — sozialak, ekonomikoak, ekologikoak eta demokratikoak — ezaugarritutako testuinguru honetan, Euroeskualdeak helburu argi bat lortu nahi izan du: **mugaz gaindiko lankidetza kohesiorako, berrikuntzarako eta lurralde erresilientziarako palanka bihurtzea**. Politika publikoak, tokiko dinamikak eta Europako finantzaketa artikulatuz, lurraldeen arteko bideratzaile, katalizatzaile eta lotura gisa berresten da erakundea.

Euroeskualdeko hiritartasuna da erakundearen ekintza guztien erdigunea eta, kultur, hezkuntza, kirol eta elkartasun proiektuen bidez indartzen da, nortasun partekatu, inklusibo eta pluralari forma emanez. Gazteriak, eleaniztasunak, arte-sorkuntzak, elkartasunak eta parte-hartzeak hainbat aukera eskaini dituzte lankidetza ukigarria, bizia eta egokia izan dadin herritarrentzat. Aldi berean, Euroeskualdeak garapen berritzaile, lehiakor eta jasangarri baten alde egiten jarraitu du, trantsizio ekologikoaren, subiranotasun teknologikoaren, osasungintzaren zein nekazaritza ekologikoaren arloko erronka estrategikoei heltzeko gai diren maila handiko lankidetza industrialak, zientifikoak eta ekonomikoak babestuz. Azkenik, jardueraren zati handi bat garapen jasangarrira eta lurralde kohesiora bideratu da, mugaz gaindiko mugikortasun erraz baterako zein datu fidagarri eta partekatuetan oinarritutako lurralde antolamendu baterako irtenbide zehatzak bultzatuz, eta, era berean, Euroeskualdeko politika publikoen eraginkortasuna eta erresilientzia indartuz.

Euroeskualdeak bultzatutako edo koordinatutako Europako proiektu egituratzaileen gorakada ere agertu du 2025 urteak. HEZHI, LANEAN, TRANSFERMUGI proiektuek eta Mendebaldeko Eremu Funtzionalaren (AFOMEF) koordinazioak anbizio argi bat erakusten dute: **mugikortasuna, enplegua, hizkuntzen ikaskuntza edo zerbitzu publikoetarako sarbidea geldiarazten duten mugaz gaindiko oztopoak ezabatzea eta bizigunearen neurriko irtenbide jasangarriak eraikitzea**. Proiektu horien bidez, Euroeskualdeak ikuspegi estrategiko bat ezartzeko eta proiektuen ingeniariatza zein inplementazio operatiboa artikulatzeko eta, aldi berean, Europako finantzaketa garrantzitsuak bermatzeko gaitasuna duela erakusten du, lurraldearen mesedetan.

Euroeskualdeak Europan gero eta zeregin garrantzitsuagoa duela berretsi du urte honek. Erakundea aitortza duen eragilea da mugaz gaindiko lankidetza-sareetan eta aktiboki dihardu Interreg-en etorkizunari, maila anitzeko gobernantzari zein mugaz gaindiko oztopoak ezabatzeari buruzko eztabaidetan, **Europako erabaki-prozesuetan, mugako lurraldeen ahotsa entzunaraziz**. Aitortza horrek erantzukizun gero eta handiagoak eskatzen ditu: ezagutzak sortzea, inpaktuak dokumentatzea, tresna berriekin esperimentatzea eta hurbilagoa, koherenteagoa eta herritarrentzat ulergarriagoa den Europa defendatzea.

Jarduera-txosten honek emankorra eta egituratzailea izan den eta ekintzara bideratu den urte baten berri ematen du. Era berean, sendotasunez erakusten du ziurgabetasunez betetako munduan, muga ez dela oztopo bat; proiektu, elkartasun eta etorkizun partekatu baterako espazio bat baizik; beste era batera berritzeko, lurralde eta gizarte kohesioa indartzeko eta mugako eremua Europa erabilgarri eta bizi baterako espazio pilotu bihurtzeko aukera bat. Txosten honek, mugitzen ari den Euroeskualde baten testigantza ematen du, aurrea hartzeko, berritzeko eta federatzeko gai dena.



1.1

Babestutako proiektuak

1.1.1

Abian diren proiektuak

2025ean, Euroeskualdeak bideratzaile eta katalizatzaile gisa duen eginkizuna berretsi du gizartearen, kulturen eta hezkuntzan eragin handia duten ekintzak babestuz. Lurraldeen arteko partaidetzan, trukean eta hurbiltasunean oinarritutako egitasmo horiek, euren arteko elkarreraginari esker, hiritartasun bizia, inklusiboa eta jasangarria sortzen laguntzen dute. Ekimenek helburu komun bat dute: mugaz gaindiko lankidetzak eguneroko jardueretan gauzatzea, herritarrengandik ahalik eta hurbilen.

Lagundutako proiektuen aniztasunak inplikaturako herritarren ugaritasuna eta hiru lurraldeetako eragileen asmamena islatzen du. Ekimenak partaideek ekintza kolektibo originalak sortzeko duten gaitasunaren lekuko dira, muga administratiboetatik haratago loturak ehuntzeko gai. Askotariko proiektu horien artean, hainbat adibide enblematiko daude Euroeskualdearen dinamikaren eragina argi eta garbi erakusten dutenak.

Gazteriak ekintzaren erdigunean jarraitzen du. Hainbat udalerrik bultzatzen duten **Mugaldeko Udaleku Ibiltaria** proiektuak ibilbide oparoa eskaintzen die gazte nerabeei mugaren bi aldeetan. Mugikortasuna, bizitza kolektiboa eta lurraldeen ezagutza sustatu eta euroeskualdeko espazioan modu zehatzean murgiltzeko aukera eskaintzen zaie gazteei, herritartasun irekian eta komunean sakonduz.

Kirola ere kohesiorako tresna ahaltsua da. **Benna** proiektuaren bidez, hiru saskibalo federazioek mugaz gaindiko txapelketa lagunkoiak antolatzen dituzte gazte federatuentzat. Horrela, kirola elkartrukearen, elkartasunaren eta talde-espirituaren bektore bihurtzen da, eta, aldi berean, euroeskualdeko komunitateko kide izatearen sentimendua indartzen da.

Kulturak eta ondareak ere badute beren lekua ekitaldi honetan. Irulegiko eskuaren jatorriari buruzko **Eskuaren Mintzoa** dokumentalak ondare immateriala balioan jarri eta memoria kolektiboaren transmisioa errazten du. Proiektu horren osagarri den, **Dolareak** ekimenak zurgintza-ikasle gazteak eta sagardo-prentsa tradizional baten berrikuntza batzen ditu. Prestakuntza, artisautza alorreko ezagutza eta landa ondarea uztartzen dituen egitasmoak argi erakusten du mugaz gaindiko lankidetzak belaunaldien eta lurraldeen arteko loturak sortzeko duen gaitasuna.

Eleaniztasuna txiki-txikitatik jasotzen diren proiektu berritzaileen bidez ere gara daiteke. **Lula Otsoa** podcastak istorio bat proposatzen du euskaraz, frantsesez, gaztelaniaz eta okzitanieraz, euroeskualdeko hizkuntza aberastasunarekiko interesa haurrengan piztuz. Ildo berean, **Famili'on** proiektuak hizkuntza egonaldi ibiltariak antolatzen ditu, euskararen praktika indartzeko eta familien arteko kultur elkartrukeak sustatzeko.

Azkenik, hainbat ekimen abiatu dira egungo erronka **sozialei zuzenean erantzuteko**, elkartasuna lankidetzaren erdigunean kokatuz. **Elkarri** proiektuak, hiru lurraldeetako elikagai bankuen babesa duenak, mugaz gaindiko koordinazioa indartzen du elikagaien prekarietatearen aurka hobeto borrokatzeko. Baliabideak eta ezagutzak partekatuz, euroeskualde mailara egokitutako erantzun zehatzak eskaintzen ditu.



Mugaldeko Udaleku Ibiltaria



Benna



Famili'on

1.1.2

Hautatutako proiektu berriak

«Euroeskualdeko hiritartasuna» proiektu-deialdiaren 2025eko edizioan, Euroeskualdeak 19 proiektu lagundu ditu, ia 500.000 €-ko zuzkidura emanez. Deialdira 46 proiektu aurkeztu dira eta horrek lurraldearentzat gero eta garrantzi handiagoa duela erakusten du. Hautatutako proiektuak honela banatzen dira:

- **9 proiektu «Kultura» atalean.**
- **3 proiektu «Gizarte-erronka garaikideak» atalean.**
- **4 proiektu «Hezkuntza/Gazteria» atalean.**
- **2 proiektu «Eleaniztasuna» atalean.**
- **2 proiektu «Kirolak» atalean.**

PROIEKTUAK			BAZKIDEAK			AURREKONTUA	
Gaia	Izena	Helburuak	Izena	Egoera	Lurraldea	Proiektuaren Aurrekontua	Onartutako Dirulaguntza
KULTURA	PIRENAEUS III	Azken urteetan Pirinioz gaindiko bide erromatarri buruz egindako ikerketak partekatzea da proiektu honen helburua, eta baita ondare arkeologiko komun hori balioan jartzea eta gizarteratzea ere. Truke hori mugaz gaindiko ikuspegi batetik eta lau hizkuntzatan egingo da (EUS, GAZT, FR, ING). Hirugarren edizio honetan, aurreko edizioetan bildutako datu eta ezagutza guztiak biltzen dituen liburu hirueledun bat argitaratu nahi da. Liburua herri guztietan aurkeztuko da, aditu baten hitzaldi batekin batera.	Sociedad de Ciencias Aranzadi	Proiektuburua	Euskadi	39.200 €	19.600 €
			Ayuntamiento de Auritz - Burguete	Bazkidea	Nafarroa		
			Ayuntamiento de Donazarharre	Bazkidea	Akitania-Berria		
			Ayuntamiento de Luzaide Valcarlos	Bazkidea	Nafarroa		
			Ayuntamiento de Artzibar Valle de Arce	Bazkidea	Euskadi		
	KOMETAK	Proiektu honen helburua Akitania Berriko eta Euskadiko edo Nafarroako sorkuntza plastiko eta bisualaren arloko bi artistaren arteko trukea antolatzea da, Uharteko Zentroaren eta Zebra 3-ren artean.	Instituto Vasco Etxepare	Proiektuburua	Euskadi	29.100 €	14.550 €
			Centro de Arte Contemporáneo Huarte	Bazkidea	Nafarroa		
			Zebra 3	Bazkidea	Akitania-Berria		
	KARRIKAN ZUBIAK II	Kaleko arteak sustatzeko mugaz gaindiko KARRIKAN BERRIRO plataformari jarraipena ematen dio proiektu honek. Deialdiaren bidez, plataformak laguntza pertsonalizatua eman nahi dio sortzen ari den konpainia bati, euskarazko edo testunik gabeko ikuskizunak sortzeko, sustatzeko eta zabaltzeko baliabideak eta ezagutzak eskainiz. 2024an hautatutako proiektuari emandako laguntzarekin jarraitzeaz gain, bazkide berri bat sartu da (Topada Fabrika) bitartekaritza eta sorkuntza espazio bat eskaintzea ahalbidetuko duena.	Karrikan Kaleko Antzerki Sarea	Proiektuburua	Euskadi	57.430 €	22.830 €
			TOPADA Fabrika elkarte	Bazkidea	Akitania-Berria		
			Ayuntamiento de Hendaia	Bazkidea	Akitania-Berria		
			Ayuntamiento de Bilbo	Bazkidea	Euskadi		
			Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz	Bazkidea	Euskadi		
			Ayuntamiento de Leioa	Bazkidea	Euskadi		
			Ayuntamiento de Ansoáin Antsoainigo Udala	Bazkidea	Nafarroa		
			Ayuntamiento de Pamplona Iruñako Udala	Bazkidea	Nafarroa		
			Dantzagunea, Arrigorriaga, Erreterriako Udala, Garaion Naturartea, Zirkodomo, Lezoko Udala, Zarauzko Udala, Lekeitioko udala y Ribera en Danza	Bazkide elkartua			
	ESKUAREN MINTZOA	Proiektu honen helburua «Eskuaren mintzoa» dokumentala amaitzea da, Irulegiko eskuaren aurkikuntzak euskararen historia eta haren ondarea ulertzeko funtsezko pieza arkeologiko gisa izan zuen eragina aztertzen duena.	ON iKus-entzunezkoak S.L.	Proiektuburua	Euskadi	60.000 €	30.000 €
			Labrit multimedia S.L.	Bazkidea	Nafarroa		
			Les Valseurs	Bazkidea	Akitania-Berria		
	LULA OTSOA	Proiektu hau «Lotarako ipuinak» haurrentzako soinu-fikzioaren jarraipena da. Serieak euroeskualdea zeharkatzen duen otso bat aurkezten du, bertako kulturak eta hizkuntzak ezagutaraziz. Bigarren edizio honetan animaziozko atal pilotu bat garatuko da.	Podcastfilia S.L	Proiektuburua	Euskadi	75.000 €	30.000 €
			New Gravity Laws S.L	Bazkidea	Nafarroa		
			Garluk	Bazkidea	Akitania-Berria		
	EUSKAL IHAUTERIEN BERPIZTEA II	Proiektu hau izen bereko 2024ko edizioaren jarraipena da eta ikus-entzunezkoen eremuko hiru lurraldeetako erabileak biltzen ditu: MediaBask, Abian Media eta GukMedia. Euskal inauteriak biziberritzeko asmoari jarraiki, proiektuak inauterietako pertsonaia mitologikoak ditu ardatz eta frantsesez eta euskaraz idatzitako bideoak, podcast-ak eta erreportajeak sortzen ditu.	Abian Media S.L	Proiektuburua	Nafarroa	53.000 €	26.650 €
			Iparla Baigura Komunikazioa	Bazkidea	Akitania-Berria		
			GukMedia Kultur Elkartea	Bazkidea	Euskadi		
	TRÁNSITOS ESCÉNICOS	Proiektu honek artista gazteen eta sektore eszenikoko profesionalen arteko mugikortasuna eta truke kulturalak proposatzen ditu, hiru lurraldeetako hiru egoitza artistikotan. Kultur arteko prestakuntza eszenikoak antolatuko dira lurraldeetako hiru truke zentroetan, baita prestakuntza komunekin topaketa bat ere El Punto Gunean (Nafarroa).	Asociación El Punto Gunea	Proiektuburua	Nafarroa	59.245 €	29.621 €
			Asociación de Malabaristas y Artistas de Circo - Zirkozaurre	Bazkidea	Euskadi		
			Ziliportaka Elkartea	Bazkidea	Akitania-Berria		
	BIRAN	Proiektu honek aurreko belaunaldiako bi trikitilariri buruzko dokumental bat garatu nahi du, mundu osoan zehar kontzertuak ematen dituen folk musika talde batekin (Korrontzi) bat eginez. Asmoa egungo musikaren bilakaeraz eta herriko musika praktika tradizionalaz hausnartzea da, trikitixa adibide hartuta.	Maluta Films (Zinea Sortzen SL)	Proiektuburua	Euskadi	60.000 €	30.000 €
			Futur Antérieur Production	Bazkidea	Akitania-Berria		
			Nafar Ikusentzunezkoak S.A.	Bazkidea	Nafarroa		

PROIEKTUAK			BAZKIDEAK			AURREKONTUA	
Gaia	Izena	Helburuak	Izena	Egoera	Lurraldea	Proiektuaren Aurrekontua	Onartutako Dirulaguntza
HEZKUNTZA - GAZTERIA	URPEKARI	Proiektu honen helburua urpeko robotikako lehiaketa zientifiko eta teknologiko bat sortzea da, hainbat mailatako diziplinariako ikasketxe zientifikoetako ikasleentzat. Aldez aurreko prestakuntza-ikastaroak antolatuko dira ikasleentzat, aurrez-aurrekoak zein asinkronoak. Asmoa Euroeskualdean itsas sektorea hobetzeko mugaz gaindiko lantaldeak sortzea da.	UPV/EHU	Proiektuburua	Nafarroa	59.990 €	29.995 €
			Institut universitaire de technologie (IUT) de Bordeaux	Bazkidea	Euskadi		
			UPNA	Bazkidea	Akitania-Berria		
	EDUCATION LAB	Proiektu honen helburua kulturarako sarbide mugatua duten euroeskualdeko gazteak biltzea da, Limina erakusketaren inguruan bitartekaritza gune bat diseinatzeko. Koen Vanmechelen artistaren Cosmopolitan Chicken Project Chillida leku musean. Proiektu artistiko, sozial eta zientifikoa da, aniztasun genetikoak, monolaborantza, globalizazioa eta gizakiaren eta naturaren arteko harremana bezalako gaiak lantzen dituena.	Hauser & Wirth San Sebastian (Chillida Leku)	Proiektuburua	Euskadi	29.070 €	14.535 €
			École Supérieure d'Art Pays Basque (ESAPB)	Bazkidea	Akitania-Berria		
			Asociación Nafarroa Nuevo Futuro	Bazkidea	Nafarroa		
			Facultad de Bellas Artes (UPV/EHU)	Bazkide elkartua	Euskadi		
	DOLAREAK	Arotzeriako lanbide heziketako 12 ikasleek Astigarragako udaleko bi sagardo prentsa zaharren muntaketa prozesua ikasteko 15 eguneko ikastaro bat antolatzea da proiektu honen helburua. Muntaiaren diagnostikoan unibertsitateko aditu batek hartuko du parte.	Peio Martikorena Fundazioa	Proiektuburua	Nafarroa	64.275 €	30.000 €
			Ayuntamiento de Astigarraga	Bazkidea	Euskadi		
			Federación Compagnonica	Bazkidea	Akitania-Berria		
			CF Donibane	Bazkidea	Nafarroa		
			CF EASO	Bazkidea	Euskadi		
	MUI II	Aurreko edizioan bezala, proiektuaren helburua herri parte-hartzaileetako gazteentzat kanpamendu ibiltari bat antolatzea da, mugaz gaindiko lurraldea ezagutu dezaten, euskara hizkuntza komun gisa hartuta. Gazteak oinez ibiliko dira herri herri, Urruña, Sara, Igantzi, Lesaka eta Oiartzun zeharkatuz eta hainbat ekintza proposatuko zaizkie bertan.	Ayuntamiento de Oiartzun	Proiektuburua	Euskadi	23.000 €	9.000 €
			Mancomunidad de Euskera de Bortziriak	Bazkidea	Nafarroa		
			Mairie de Sare	Bazkidea	Akitania-Berria		
			Mairie d'Urrugne	Bazkidea	Akitania-Berria		
GIZA ERRONKA GARAIAKIDEAK	ELKARRI	Proiektu horren helburua hiru lurraldeetako elikagai bankuen arteko lankidetzak indartzea da, jardunbide egokiak trukatzeak eta elikagaiak alferrik galtzearen zein prekarizatearen aurka borroka hobetzeko. Ezagutza komunak hobetzeaz gain, zirkuitu laburretako erosketak mutualizatzea da asmoa, hornidura iturriak dibertsifikatzeko.	Banque Alimentaire de Bayonne et du Pays Basque	Proiektuburua	Akitania-Berria	63.650 €	30.000 €
			Banco de Alimentos de Nafarroa	Bazkidea	Nafarroa		
			Banco de Alimentos de Gipuzkoa	Bazkidea	Euskadi		
	MUGALUR III	Aurreko edizioen ildoari jarraituz, mugaz gaindiko lurraldeetako biztanleak, ikertzaileak eta artistak biltzea du helburu proiektuak, mugaren inguruko trukeak eta gogoetak pizteko. Aurreko urteetako baino erakusketa ibiltari handiagoa aurreikusten da edizio honetan, eta horretarako euskarri berriak, animazio kit bat eta hiru hizkuntzetan eskainiko den plataforma digital parte-hartzaile bat sortuko dira.	Conseil de Développement du Pays Basque	Proiektuburua	Akitania-Berria	60.500 €	30.000 €
			CEDERNA-GARALUR	Bazkidea	Nafarroa		
			UPV/EHU	Bazkidea	Euskadi		
			Eusko Ikaskuntza	Bazkidea associé			
	CARGO KOOP	Hiri inguruneetan logistika jasangarria sustatzea da proiektu honen helburua, bertako kooperatiben arteko topaketak, mintegiak eta bisitak proposatuz. Hiri inguruneko logistika eta ingurumen eronkei buruzko sensibilizazioa egitea da asmoa, mugikortasun jasangarria balioan jarritz: bizikleta bidezko logistika (banaketa jasangarria, bizikleta kargagarrien bidez).	ZICLO-P	Proiektuburua	Nafarroa	58.754 €	29.377 €
			Coopérative CORBO	Bazkidea	Akitania-Berria		
			Coursiers Bordelais	Bazkidea	Akitania-Berria		
			Coursiers Niortais	Bazkidea	Akitania-Berria		
			Eraman Reparto Koop	Bazkidea	Euskadi		
KIROLA	PILOTASORO II	2023ko «EPAMAN» egitasmoan sortutako «Kiski» komunikazio plataforma erabiltzea da proiektu honen helburua, hiru herrien artean euskal pilotaren inguruko kultura eta kirol arteko hiru jardunaldi antolatzeko. Udalarniek umeentzako pilota txapelketak antolatuko dituzte, eta, ondoren, pilotarekin lotutako artisautza erakusketak, herri bazkaria, bertsolaritza ikuskizunak eta musika tradizionala eskainiko dira.	Labrit Multimedia S.L	Proiektuburua	Nafarroa	59.100 €	29.250 €
			Euskal Herriko Pilota Konfederazioa	Bazkidea	Euskadi		
			Association Ikas Pilota	Bazkidea	Akitania-Berria		
	BENNA II	Proiektu honen helburua saskibaloia sustatzea eta hiru lurraldeetan jardunbide egokien metodoak partekatzea da, hainbat kategoriatako lagunarteko topaketak antolatuz. Proiektuak jokalarientzako kanpamendu teknikoak ere proposatzen ditu, baita epaile eta entrenatzaileentzako prestakuntza ikastaroak ere. Urrun dauden publikoak integartzeko gizarte- eta kultura-jarduerak antolatuko dira.	Baloncesto Nueva Aquitania	Proiektuburua	Akitania-Berria	64.560 €	30.000 €
			Federación Nafarroa de Baloncesto	Bazkidea	Nafarroa		
			Federación Vasca De Baloncesto	Bazkidea	Euskadi		
ELEANIZTASUNA	XARE II	Proiektuaren helburua euroeskualdeko 15 urteko 300 gazte teknologia berrien eta euskararen inguruan bilduko dituen XARE jardunaldiaren edizio berri bat antolatzea da. Hegoaldean hainbat jardunaldi antolatu ondoren, oraingoan Baionan egingo da topaketa, Merkataritza eta Industria Ganberan, eta bertan jarduera ludikoak eta praktikoak antolatuko dira. Proiektu honek euskarazko Escape Game hibrido bat sortzea ere aurreikusten du.	Azpikari SL	Proiektuburua	Nafarroa	55.441 €	27.720 €
			ON! Piztu euskaraz	Bazkidea	Akitania-Berria		
			Mundu Berriak sexologia-berrikuntzarako	Bazkidea	Euskadi		
	FAMIL'ON II	Proiektu honen helburua Euroeskualdeko 25 familiarentzat 6 eguneko egonaldi linguistikoa antolatzea da hiru lurraldeetan, ingurune euskaldun bakoitzaren berezitasunak ezagut ditzaten. Gurasoak eta haurrek hainbat taldetan banatuko dira eta euskara mailaren arabera ikastaroak eta jarduerak egingo dituzte. Jarduera horiei esker, Iparaldeko eta Hegoaldeko familien artean lotura sendoa sortu nahi da.	Plazara	Proiektuburua	Akitania-Berria	60.000 €	30.000 €
			Ebete	Bazkidea	Euskadi		
			Dindaia	Bazkidea	Nafarroa		

1.2

Lurralde-dinamizazioa

1.2.1

Ikus-entzunezkoak

2025ean, Euroeskualdeak ikus-entzunezko sektorearen aldeko dinamikarekin jarraitu du, gobernu kideek eta kultur agentziek osatutako ikus-entzunezko lantaldearekin.

Arlo honetako elkartruke eta hausnarketetarako tartea Biarritzeko **FIPADOC** jaialdiarekin batera hasi da. Euskadin, Akitania-Berrian eta Nafarroan abian jarritako ekimenetan oinarrituta, Euroeskualdeak ikus-entzunezko ekoizpenetan ingurumenarekiko erantzukizuna sustatzeko mahai-inguru bat antolatu du jaialdiak sektoreko profesionalentzat eskaintzen duen programazioaren barruan. Eztabaidak funtsezko gai bati buruzkoak izan dira: nola murriztu karbono azterna sektorearen sormena eta bikaintasuna galdu gabe. Mahai-inguruan esperientziak eta praktika onak partekatu ahal izan dira eta gogoratu da trantsizio ekologikoa berrikuntzaren motorra izan daitekeela.



FIPADOC

Ekainean, Arroxelako **Sunny Side of the Doc** jaialdiaren 2025eko edizioan parte hartu du erakundeak, aurreko urteetan bezala. Hiru gobernuak eta haien kultur agentziak zein hiru lurraldeetako ekoizleak batu dituen standean jardun du Euroeskualdeko ordezkariak. Topagunea erakusketa-gune soil bat baino askoz gehiago izan da: zuzeneko trukeak erraztu ditu, profesionalen arteko lotura iraunkorrak josteko aukera eskaini du eta euroeskualdeko ekoizpenen sormena eta aniztasuna nabarmendu ditu.

«Euroeskualdeko Dokumentala» sariaren bidez tokiko talentuari egindako aintzatespenak euroeskualdeak sektore honetan duen goraldia islatu du. Aurten, Maia Iribarne Olhagarai zuzendutako eta Gastibeltzak Doxa Producciones-ekin elkarlanean ekoiztutako Altxaliliak film luzeak irabazi du 6.000 euroko saria, filmaren garapenean lagunduko dena. Sari-banaketa **Donostiako Nazioarteko Zinemaldi** ospetsuaren baitan egin da, **Lau Haizetara** koprodukzio foroaren pitching egunean. Hiru finalistek babeslez eta adituz osatutako epaimahai baten aurrean beren lanak aurkezteko aukera izan dute eta euroeskualdeko proiektuen ausardia, originaltasuna eta kalitatea azpimarratu dituzte.

Ekimen horien bidez, Euroeskualdeak lankidetzan eta proiektu berritzaileetan oinarritutako mugaz gaindiko ikus-entzunezko ekosistema bat sortzeko duen gaitasuna berretsi du. Profesionalen arteko topaketek zein obren hedapen eta aintzatespenek 2025a ikus-entzunezkoen sektorean sendotu eta proiektzioa lortzeko urtea izan dela erakusten dute.



Donostiako Nazioarteko Zinemaldi

1.2.2

Eleaniztasuna

Ekitaldi honetan, eleaniztasuna erakundeetako zein biztanleen eguneroko bizitzako praktika bizia eta agerikoa bihurtzen duten ekimenak babestu eta sustatu ditu Euroeskualdeak. Elkarriketaren eta esperimazioaren bidezko logika horren helburua eleaniztasuna eguneroko bizitzan eta komunikazio instituzionalean bizirik dagoen errealitate bihurtzea da.

Euroeskualdeak **mugaz gaindiko komunikazio eleanitzari** buruzko udako ikastaroa antolatu eta zuzendu du, eta mugaz gaindiko hizkuntza eta kultura lankidetzarekin engaiatutako 160 parte-hartzaile eta hizlari baino gehiago bildu ditu.



Mugaz gaindiko komunikazio eleanitzari

1.3 Europako proiektua

1.3.1 HEZHI

Interreg
POCTEFA



Cofinanciado por
la UNION EUROPEA
Cofinancé par
l'UNION EUROPÉENNE

AFOMEF

HEZHI

Eztabaidek agerian utzi zuten eleaniztasuna inklusioaren printzipiotik haratago doala: kohesiorako eta lankidetzarako benetako tresna da, bizitza instituzionala eta soziala egituratzen duena. Hizkuntzak espazio publikoan edo digitalean ikusteak tokiko nortasunak balioesten ditu eta, aldi berean, erakundeen lana aberasten du. Ekitaldiak «eleaniztasun dinamikoa» ere nabarmendu du, norberak aukeratutako hizkuntzan adierazteko askatasuna ahalbidetzen duen tresna. Ikuspegi horrek giza baliabideak eta baliabide logistikoak eskatzen baditu ere, teknologia digitalek eta adimen artifizialak soluzio zehatzak eskaintzen dituzte, hizkuntzak erabiltzeko erraztasuna eskaintzeko eta eleaniztasuna eguneroko praktika positibo bihurtu dadin ahalbidetzeko.

Aldi berean, Euroeskualdeak Europara eraman du bere esperientzia, TEIN Euroinstitutuak urtero antolatzen duen «**Beyond Borders: Culture, Language, and Identity in European Integration**» konferentzian parte hartuz. Hizkuntza aniztasunak mugaz gaindiko lankidetzaren egituren komunikazioan eragiten dituen erronkei buruzko mahai-inguruak aukera eman du tokiko politikek Europako eztabaida nola inspiratu eta elikatu dezaketen erakusteko.



Mugaz gaindiko komunikazio eleanitzari

Azkenik, Euroeskualdeak aktiboki parte hartu du ON! gailua sortu duen lantaldean. **ON!** Elkarlana sustatzen duen tresna zehatza da, webgunearen, hirugarrenen foroen, argitalpenen eta tokian tokiko esku-hartzeen bidez euskarari buruzko sentsibilizazio lanarekin jarraitzen duena. Esperimentazio pedagogikoa eta bitartekaritza kulturala babesten ditu, aldi berean gizartearen bilakaera kontuan hartuta.



ON!

2025eko maiatzean jarri da abian AFOMEF POCTEFA proiektu-deialdiaren esparruan hautatutako **HEZHI** proiektua – Hezkuntza eta Hizkuntza –. **Egitasmoaren helburua lurraldeko hizkuntzen – euskara, gaztelania eta frantsesa – irakaskuntza eta ikaskuntza sustatzea da**, hizkuntza oztopoa gaindituz eta mugaz gaindiko eremuan lankidetzaren mugikortasuna eta integrazioa erraztuz. Proiektuak hezkuntza-eredu eleaniztunen ikerketa eta hedapena; hizkuntza-formakuntzako programa berrien sorkuntza eta hizkuntza- eta kultura-edukietan oinarritutako eskolako zein eskolaz kanpoko trukeak sustatzen ditu.

HEZHI mugaz gaindiko partzuergo batek bultzatzen du, Akitania-Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdeak koordinatuta. Partzuergo horrek eskualdeko gobernuak (Eusko Jaurilaritza, Nafarroako Gobernua), goi-mailako irakaskuntzako erakundeak (Euskal Herriko Unibertsitatea – EHU Mondragon Unibertsitatea – HUHEZI, Bordeaux Montaigne Unibertsitatea) eta tokiko hezkuntza- eta kultura-erakundeak (Euskal Herriko Ikastolak, Seaska, Euskal Kultur Erakundea – EKE) biltzen ditu. Proiektua hezkuntza eta hizkuntza politiketan adituak diren bazkide elkartuen sare batean ere oinarritzen da: Pirinio Atlantikoetako Departamentu Kontseilua (CD64), Gipuzkoako Foru Aldundia, IKAS-BI elkarte, Larrun Eskola ikastetxea eta Bordeleko Errektoretza.

Proiektu berritzaile honek esku hartzeko lau ardatz nagusi ditu:

- Mugako lurraldeetako hezkuntza **eleaniztuneko marko teoriko-praktiko** bat lantzea, jardunbide egokiak identifikatuz eta tokian bisitak eginez.
- **Irakasleen eta hezkuntzako profesionalen prestakuntza** eleaniztuna garatzea.
- **Baliabide pedagogikoak eta komunikazio-baliabideak sortzea.**
- **Hezkuntza-mugikortasunerako dispositiboak garatzea eta sustatzea.**

Proiektuko bazkideek ekintza zehatzak jarri dituzte abian: bai unibertsitate ikerketaren arloan, Bordeaux Montaigne Unibertsitateko eta Euskal Herriko Unibertsitateko doktoregai batek Arnegi-Luzaideko lehen eskolan egindako ikerketaren aurkezpenaren bidez; bai hezkuntza eta arte arloan ere, Euskal Kultur Erakundeak eta Etxepare Euskal Institutuak Donostian egindako lehen bileraren bidez. Truke artistikoei dagokionez, elkartutako eskoletako irakasleak Ines Osinaga eta Pantxix Bidart artistekin bildu ziren.

HEZHI proiektuaren (EFA 158-04) % 65 Europar Batasunaren laguntzarekin finantzatu da, Espainia-Frantzia-Andorra Interreg VI-A Programako AFOMEF POCTEFA deialdiaren bidez (POCTEFA 2021-2027). POCTEFaren helburua Espainiaren, Frantziaren eta Andorraren arteko mugaren integrazio ekonomiko eta soziala indartzea da.



2

Garapen adimenduna, lehiakorra, inklusiboa eta jasagarria

2.1

Babestutako proiektuak

2.1.1

Abian diren proiektuak

2025ean, Akitania-Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdeak berretsi egin du mugaz gaindiko berrikuntzaren eta lankidetzaren katalizatzaile gisa duen zeregina, eragin handiko proiektu egituratzaileak babestuz. Euroeskualdeko Berrikuntza Proiektuen Deialdiaren bidez, erakundeak hiru lurraldeen osagarritasunetan oinarritutako lankidetzak sustatzen ditu, espezializazio adimenduneko estrategiekin (RIS4) bat etorriz.

LLETek aurreko deialdietatik eratorritako 14 lankidetzaren estrategikoren jarraipena eta gauzatzea bermatu du ekitaldi honetan. Proiektu horietako asko iritsi dira heldutasunera, Euroeskualdeak lankidetzaren emaitzak ukigarri bihurtzeko duen gaitasuna agerian utziz.

Sektore aeroespazialean eta fabrikazio aurreratuan, Addilanza proiektuak metalen fabrikazio gehigarria osagai industrial konplexuetan aplikatzeko pauso erabakigarria emateko aukera eman du. Proiektuak berrikuntza kate osoa hartzen du bere baitan: adierazleak eta zehaztapen teknikoak definitzetik erabilera errealeko kasuak baliozkotzeraino. Ekitaldi honetako lan zehatzak honakoak izan dira: osagaiak Direct Energy Deposition (DED) bidez konpontzea, optimizazio topologikoko ex nihilo fabrikazioa, Selective Laser Melting (SLM) prozesuak hobetzea eta hautaketa teknologikoan laguntzeko tresnak garatzea. AHP (Analytic Hierarchy Process) tresnaren prototipo funtzional bat garatu da erabaki industrialak bideratzeko. addilanzak ingurumen erronkei ere heltzen die: ingurumenean duen eragina zein errendimendu ekonomikoa eta kualitatiboa zehazteko adierazleak definitu dira, eta bizi zikloaren azterketak (BZA) materialen kontsumoan eta emisioetan izandako murrizketa esanguratsuak direla erakutsi du.



Addilanza

Bideonena proiektuak industria automatizatuaren funtsezko erronka bati heldu dio: robot mugikor autonomoen energia kontsumoa murriztea. Ehunen eta oinetakoen birziklapenean espezializatutako CETIA enpresaren behar zehatzei erantzuteko, proiektuak nabigazio algoritmo aurreratuak eta energia murrizketa osatzen duten ibilbideen plangintza garatu ditu. Adimen artifiziala, errefortzu bidezko ikaskuntza eta biki digitalen teknologiak konbinatuz, partzuergoak roboten autonomia luzatzea eta erabileraaldiak optimizatzea ahalbidetzen duten soluzioak diseinatu ditu. BIDEONENAK argi eta garbi erakusten du euroeskualdeko berrikuntzak industria-behar zehatzei erantzuteko duen gaitasuna, energia-trantsizioan ere lagunduz.



Nekazaritzaren eta nekazaritzako elikagaien industriaren esparruan, **ReTPIM** proiektuarekin, Euroeskualdeak kalitatezko izendapena duten piper **ekoizle eta teknikarien** mugaz gaindiko lehen sarea sortzen lagundu du, Ezpeletako Piperra JDB, Gernikako Piperra AGB eta Lodosako Piperra JDB batuz. Ekimen aitzindari horri esker, trukerako eta lankidetzarako espazio bat egituratu ahal izan da, erronka komunen inguruan, hala nola trazabilitatea, laguntza teknikoa, produktuen kalitatea eta ekoizpen kateen eragin sozioekonomikoa.



RetPIM

Ogiaren balio kateko eragileen arteko lankidetzak estuaren erakusle da **Hobbea** proiektua — «lurraldeko ogi ekologikoa hobe guztiontzat». Tokiko lehengaietara iristeko zailtasunak eta nekazaritza ekologikoko ekoizpenaren erronkak ikusita, proiektuak mugaz gaindiko dinamika kolektibo bat egituratzea du helburu. Antzinako garien, eta nekazaritza zein ogi ekologikoaren nutrizio-balioen inguruko hiru topaketa antolatu dira. Haziak ugaltzeko saiakuntzak eta okintza-probak egin dira hiru lurraldeetan. Truke horien ondoren, parte hartzeko gida bat plazaratu da, ezagutzak transmititzeko benetako tresna bihurtu dena; eta etorkizunerako lan ildo komunak ere definitu dira, kontsumitzaileen artean ogi ekologikoaren ikusgarritasuna eta aitortza indartuz



Hobbea

Osasunaren eta bio-osasunaren arloan, Epinoc proiektuak aurrerapen handia ekarri du epitopoen identifikazioan, txertoak eta antigorputzak diseinatzeko funtsezko elementua. Proiektuak aukera eman du milioi bat epitopo baino gehiago aztertzeko eta liburutegi artifizial optimizatuak diseinatzeko. Emaizten artean daude epitopoak sortzeko eta sailkatzeko tresna berritzaileak garatzea, sailkatzeko eta hautatzeko txip mikrofluidikoak fabrikatzea eta fluoreszentzia mikrofluidikoa polarizatzekeko plataforma bat. Aurrerapen horiek etorkizun handiko perspektibak zabaltzen dituzte, agente patogeno berriak agertzen direnean erantzun azkarragoa eta eraginkorragoa emateko.



Azkenik, **kultura eta sormen industriaren** sektorean, **Euroregional Green Audiovisual Hub**-ek funtsezko zeregina izan du Euskal Autonomia Erkidegoko, Nafarroako eta Akitania-Berriko ikus-entzunezkoen ekosistemak lotzeko. Hub-ak sareak sortzen lagundu du ikus-entzunezkoen prestakuntza, ikerketa eta sorkuntzako eragileen artean. Proiektuak balio erantsi handiko hainbat emaitza zehatz sortu ditu.

Euroeskualdeko Behatokia (euroregionalhub.eu), online eskaintzen dena, erreferentziatzeko tresna da orain, eta prestakuntza eta ikerketa eskaintzak, mugaz gaindiko lankidetzan interesa duten eragileen mapa eta ikus-entzunezkoen sektoreko ingurumen jasangarritasunaren arloko baliabideak eta jardunbide egokiak biltzen ditu. Aldi berean, esplorazio-txosten batek hiru lurraldeen arteko bateragarritasunak eta osagarritasunak aztertu ditu I+G+b arloan, garapen komunerako eta berrikuntzarako aukerak identifikatuz. Proiektuko lorpen esanguratsuen artean, Animaziorako Euroeskualdeko Egoitza bat dago, hiru lurraldeetako hiru egileri akonpainamendua eskaini dena, beren ikus-entzunezko lanak idatzi, sortu eta ekoizteko faseetan.



Green Audiovisual Hub



Green Audiovisual jardunaldiak

2.1.2

Hautatutako proiektu berriak

2025ean, LLETek zazpi lankidetza berri hautatu ditu «Euroeskualdeko berrikuntza 2025» deialdiaren esparruan, guztira 400.000 euroko zuzkidura eskainiz. 24 proiektu aurkeztu dira deialdira.

PROIEKTUAK			BAZKIDEAK			AURREKONTUA	
Gaia	Izena	Helburuak	Izena	Egoera	Lurraldea	Proiektuaren Aurrekontua	Onartutako Dirulaguntza
FABRIKAZIO AURERATUA, AERONAUTIKA, MUGIKORTASUN ELEKTRIKOA	CAST 3D	CAST 3D proiektuaren helburua 3Dn inprimatutako erretxinazko modeloen erabilera baliozkotzea eta optimizatzea da, balio handiko piezetako aluminioa galdatzeko erabiltzen den argizari galduko prozesu tradizionala ordezkatzea. Erretxinazko modeloen 3D inprimaketak aukera malguagoa, azkarragoa eta moldagarriagoa eskaintzen du. Proiektu horrek 3D inprimaketa-prozesu sendoa eta ekonomikoki bideragarria ezarriko du, doitasun handiko piezak serie laburretan ekoizteko, euroeskualdeko bertako oinarri teknologiko/logistikoa baliatuz.	NHOD Industries	Proiektuburua	Akitania-Berria	116.560 €	57.980 €
			NAITEC	Bazkidea	Nafarroa		
			Eibar Precision Casting	Bazkidea	Euskadi		
	CIRCE	Fabrikazio gehigarriko teknologiak erabiliz uhin-gidarien diseinua eta fabrikazioa hobetzeko proiektua da CIRCE. Helburu nagusia elkarreko eraginik gabeko gailu pasiboak garatzea da, 3D inprimaketa metalikoa eta polimerikoa erabiliz; horri esker, kostuak eta garapen denborak murriztu eta geometria berritzaileak esploratu ahal izango dira. CIRCEk alternatiba malgu eta eraginkorra proposatzen du ohiko mekanizazio-metodoen aurrean, satelite bidezko komunikazioetan, radarrean eta 5G sistemetan potentzial handia baitute.	ANTERAL S.L	Proiektuburua	Nafarroa	150.000 €	75.000 €
			Fundación Centro de Tecnologías Aeronáuticas - CTA	Bazkidea	Euskadi		
			NAITEC	Bazkidea	Nafarroa		
			LISI AEROSPACE Additive Manufacturing	Bazkidea	Akitania-Berria		
INDUSTRIA SORTZAILE ETA KULTURALAK, IKUS-ENTZUNEZKO INDUSTRIA	EUROHUB DESIGN	Euroeskualdeko diseinu ekosistema bat sortzea da helburua, Akitania, Nafarroa eta Euskadiko enpresen, profesionalen eta ezagutza zentrozen arteko lankidetzak bultzatuko duena. Euroeskualdeko diseinu ekosistema bat eraikitzeke prozesu gisa planteatzen da proiektua, azken emaitza gisa mugaz gaindiko hub bat sortzea izango duena.	Asociación clúster del sector del hábitat, madera, oficina y contract. CLUSTER HABIC	Proiektuburua	Euskadi	145.000 €	72.500 €
			SOKOA S.A.	Bazkidea	Akitania-Berria		
			UNAV	Bazkidea	Nafarroa		
	HEDABIL	«HEDABIL» proiektuak datu-biltegi integral eta operatibo bat garatuko du euskarazko komunikazioaren hartzaileak aztertzeke, horretarako gaur egun sakabanatuta dauden iturriak konektatuz eta estandarizatuz. Helburua ikuspegi bateratua eta 360 graduko lortzea da, analisi deskribatzaileak, diagnostiko prediktiboak zein aginduzkoak eta agente koadro estrategikoak eskainiz. Horrela, analisi integraleko sistema bat ezarriko da, eta sektorea prest egongo da kanal anitzeko audientzia integratu bat neurtzeko.	EHU	Proiektuburua	Euskadi	139.706 €	68.000 €
			Hekimen elkarte	Bazkidea	Euskadi		
			HEKIMEN	Bazkidea	Euskadi		
ENERGIA BERRITZAGARRIAK	EKIMUGI	EKIMUGI proiektuaren helburua elektromugikortasunaren eta energia berriztagarrien arteko sinergiak aztertzea eta frogatzea da, Euroeskualdeko mugaz gaindiko energia komunitateen esparruan. ENERKIDE proiektuaren lortzearekin batera, EKIMUGI auto elektrikoa eta partekatua erabiltzeko oztupoak eta palankak aztertuko ditu, kargatzeko azpiegituren eta lurraldeen arteko mugikortasun zerbiztuen bateragarritasuna aztertuko du, eta ekoizpen berriztagarriaren, birkarga adimendunaren eta sarearen malgutasunaren arteko artikulazioa optimizatzeko tresna potentzial bat proposatuko du.	AUPA	Proiektuburua	Akitania-Berria	70.888 €	35.444 €
			GOIENER	Bazkidea	Euskadi		
			NAFARKOOP	Bazkidea	Nafarroa		
			ESTIA	Bazkidea	Akitania-Berria		
BIOZIENTZIA, OSASUNGINTZA, SILVER EKONOMIA	EINEM	Dietari eragiten dion eta esklerosi anizkoitza duten pertsonekin dagoeneko probatu den esku-hartze berritzaile bat zientifikoki baliozkotzea da proiektu honen helburua; esku-hartzea baino lehen, amaitu eta berehala zein amaitu eta hiru hilabetera egindako lagin biologikoen analisiaren bidez. Funtsezko adierazleak aztertuko dira, hala nola hanturazko profila, mikrobiota, metabolitoak eta dietaren konposatu onuragarrien presentzia.	Asociación Instituto de Investigación Sanitaria Biogipuzkoa	Proiektuburua	Euskadi	127.520 €	63.760 €
			EHU	Bazkidea	Euskadi		
			UNAV	Bazkidea	Nafarroa		
			Institut des Sciences de la Vigne et du Vin, Université de Bordeaux	Bazkidea	Akitania-Berria		
ELIKAGAIEN INDUSTRIA, JANARI OSASUNGARRIA	INKUBA SAREA 2	INKUBA SAREA V2 proiektuaren helburua euroeskualdean nekazaritzako elikagaien, nekazaritzaren eta ingurumen sektoreen garapena sustatzea da, aukerak identifikatuz eta sortzen ari diren start-up berriei lagunduz. Ekintzaileak, erakundeak eta adituak batzen dituen lankidetzak-ikuspegi baten bidez, proiektuak enpresa berrien sorrera sustatu eta dauden ekimenak indartu nahi ditu, parte hartzen duten eskualdeetan eragin ekonomiko eta soziala sortuz.	AGOUR	Proiektuburua	Akitania-Berria	150.000 €	75.000 €
			AZTI	Bazkidea	Euskadi		
			CEIN	Bazkidea	Nafarroa		

2.2

Euroeskualdeko merkataritza Esparru hitzarmena

2025ean hiru urterako onartu den Akitania-Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdearen eta hiru Merkataritza Ganberen arteko **esparru hitzarmena** epe luzera begirako eta euroeskualde mailako ekintza ekonomiko estrategikoak hedatzeko tresna egituratzailea da. Hitzarmenak ehun ekonomikoaren lehiakortasuna, iraunkortasuna eta lurraldeko errotzea sendotzeko ikuspegi integratua eta mugaz gaindikoa eskaintzen du, eta, aldi berean, balioan jartzen ditu hiru lurraldeen artean dauden osagarritasunak. Esparru-hitzarmenaren helburuak honakoak dira:

- Euroeskualdearen barruan enpresei merkatu-aukera berriak eskuratzen laguntzea.
- Mugaz gaindiko industria- eta merkataritza-elkarteak sustatzea, batez ere sektore estrategikoetan.
- Mugaren iparraldean eta hegoaldean jarduerak ezartzeko dinamika babestea.
- ETEei laguntza pertsonalizatua eskaintzea, haien behar zehatzei erantzuteko.
- Euroeskualdearen ikusgarritasun instituzionala indartzea eta egindako ekintza ekonomikoen epe luzerako eragina sendotzea.

2025ean, **hiru Merkataritza Ganberak hainbat sektoretako 50 ETEri** eman diete laguntza gai zehatzetan, hala nola azpikontratatistak, hornitzaileak edo bazkideak bilatzerakoan, eta baita mugaren bi aldeetan establezimendu berriak ezartzeko proiektuetan ere.

Ekonomiari buruzko mugaz gaindiko hiru topaketa nabarmendu dira urtean:

- **Iruñean, nekazaritzako elikagaien sektoreari** eskainitako topaketa batek **80 enpresa** baino gehiago bildu ditu, eta **180 B2B bilera** baino gehiago antolatu ditu, ekoizleen, banatzaileen eta hornidura kateko eragileen arteko harremana erraztuz, euroeskualdeko salmenta kanalen inguruan.
- **Baionan, turismoari** eskainitako topaketa batek **75 enpresa** bildu ditu eta **160 B2B bilera** baino gehiago sortu ditu, euroeskualdeko estrategia turistikoaren, jardunbide egokien trukearen eta lankidetzazko soluzioen garapenaren inguruan, soluzio digitalak besteak beste.
- **Donostian, silver ekonomiari eta osasun sektoreari** eskainitako topaketa batek **75 parte-hartzaile** baino gehiago bildu zituen, eta **160 B2B bilera** baino gehiago antolatu ditu.

Horiez gain, **gaikako hiru web mintegi** antolatu dira, Euroeskualdean eskuragarri dauden produktu eta zerbitzuen elkar ezagutza hobetzeko eta enpresei mugaz gaindiko garapenean laguntzeko. Saio horiek industria sektoreko azpikontratazioari, euroeskualdeko merkaturako sarbideari eta merkataritza-agenteen zereginei buruzkoak izan dira, eta, batez beste, **60 parte-hartzaile** baino gehiago bildu dituzte.

Lehen emaitza horiek **mugaz gaindiko lankidetzaren ekonomikoaren dinamika sendoa eta egituratzailea** islatzen dute, esparru-hitzarmenak ezarritako helburuekin erabat bat datorrena. Eta era berean, tresna hori epe luzerako palanka estrategiko gisa egokia dela berretsi dute, enpresen eta Euroeskualdearen erakargarritasun ekonomikoa indartzen baitu.



Mugazgaindiko topaketa ekonomikoak

2.3

Lankidetza estrategikoak

Orain arte abiarazitako ekintzak sendotzeko, kapitalizatzeko eta ekintzen arteko koherentzia indartzeko dinamika nagusitu da ekitaldi honetan. Sortutako partzuergoek zeregin erabakigarria izan dute mugaz gaindiko lankidetza jasangarriak egituratzeko, erreferentzia partekatutako sortzeko eta euroeskualeko integrazio oztopo zehatzak ezabatzeko.

2.3.1

EUROBOOST

Enpresen mugaz gaindiko potentziala indartzeko eta euroeskualde mailan eragin ekonomiko handiena duten eragileak identifikatzeko diseinatutako baliabide bat da **EUROBOOST**. Esplorazio-proiektu egituratzaile honek oinarri metodologikoak eta estrategikoak ezarri ditu enpresei etorkizunean eman beharreko laguntza indartzeko, eta onartu berri den POCTEFA proiektu batek horretan sakontzeko aukera eskainiko du.

Proiektuak hainbat emaitza garrantzitsu erdietsi ditu. Mugaz gaindiko integrazio potentzial handiena duten enpresak eta sektoreak identifikatzeko funtsezko adierazleak definitzea ahalbidetu du, haien hazkunde estrategia, lurraldean duten errotzea, bai ekosistemaren motore izateko duten gaitasuna kontuan hartuta. Mugaz gaindiko zein eskualde barneko azeleragailu-ereduen azterketa konparatibo sakon batek jardunbide egokiak, antolamendu-eredu egokiak eta enpresen nazioartekotzea babesteko laguntza-tresna eraginkorrenak azalerratu ditu.

Analisi guztiak azterlan operatibo batean bateratu dira eta, gaur egun, baliabide honek zuzeneko laguntza eskaintzen du 2025eko udazkenean onartutako POCTEFA proiektuaren ekintzak abian jartzeko, eta, horrela, ekimenaren jarraipena eta epe luzeko inpaktua bermatzeko.

2.3.2

ETESS



2025ean, **Ekonomia Sozial eta Solidarioarako Elkarte Estrategikoak (ETESS)** diagnostiko partekatu bat landu du. Azterketak hiru lurraldeen erronka komunak eta aukera espezifikoak agerian uzten ditu, eta tokiko nortasunekiko errespetuzko ikuspegi komun bat eraikitze beharra azpimarratu.

Hori oinarri hartuta, epe luzerako estrategia bat definitu eta aplikazio progresiboa eta operatiboa ahalbidetzen duten lehentasun zehatzak identifikatu dira. Lau ardatz nagusik egituratzen dute estrategia hori. Lehenengoak gazteriari eta talentuaren beharrari erantzuten dio eta ESS eta enpresa espiritu kooperatiboa sustatzea, enplegarritasuna eta laneratzea erraztea eta gazteak sektorean integratzea du helburu.

Bigarren ardatzak ekintzailatza du jomugan, ekimen kooperatiboak babestea eta mugaz gaindiko enpresen ekosisteman ESSren kultura indartzea ditu xede.

Hirugarren ardatza ezagutzaren garapenean oinarritzen da eta behatoki dinamiko bat sortu nahi du, mugaz gaindiko lurraldearen errealitateak eta beharrak hobeto ulertzeko eta lankidetza-ekintzak bideratzeko.

Laugarren eta azken ardatzak, elkarteko barne lankidetza eta gobernantza indartzea du helburu, erakunde elkartuen eta ESS-ko ekosistema osoaren arteko koordinazio mekanismoak egituratzeko.

2.3.3

ICT

Mugaz Gaindiko Lankidetzarako Institutuak (ICT) mugan zehar Pyrene Euro-Institutua sortzen eta garatzen jarraitu du 2025ean, UPPA, NUP eta EHU unibertsitateen parte-hartze aktiboarekin. Lan-taldearen helburu nagusiak Euro-Institutuaren etorkizuneko zerbitzuen espermentazioan jardutea eta mugaz gaindiko lankidetzara bideratutako zerbitzu jasangarrien katalogo bat sortzea dira.

Urteko unerik garrantzitsuenen artean, «Mugaz gaindiko lurraldea» mugaz gaindiko ikerketarako ikasleen jardunaldia aipatu behar da. Jardunaldi horrek aukera eman die hiru unibertsitateetako ikasleei beren lanak aurkezteko eta gai garrantzitsuei buruzko iritziak trukatzeko, hala nola merkatu bakarrari, pertsonen zirkulazioari, mugei, mugaz gaindiko herritasunari edo euroeskualdearen zereginari buruz.

ICT lankidetzak mugaz gaindiko bi prestakuntza ere proposatu ditu, mugaz gaindiko lankidetzari eta mugaz gaindiko kulturartekotasunari eta hizkuntzei buruzkoak, bai eta euroeskualde mailako mugaz gaindiko lankidetzako prestakuntzari buruzko ikasketa-jardunaldi bat ere.

Azkenik, mugaz gaindiko egiturazko oztopoei buruzko bi azterlan juridikoren amaiera izan da urteko emaitza nagusietako bat, mugaz gaindiko langileen fiskalitatea eta unibertsitate-titulu bateratuen sorrera ikertzen dituenaz. Azterlan horiek analisi juridiko sakonak eta irtenbide zehatzak ematen dituzte, eta horrek zuzenean laguntzen du Euroeskualeko integrazio ekonomikoak, sozialak eta unibertsitate mailakoak dituzten oztopoak ezabatzen.



Mugaz gaindiko lankidetzarako institutua

2.4 Lurraldeko dinamizazioa

2.4.1 Unibertsitateen arteko lankidetzak

2025ean Euroeskualdeko **unibertsitateen arteko lankidetzaren** esparruan egindako lanari esker, Akitania-Berriko, Euskadiko eta Nafarroako goi mailako irakaskuntza-zentroen arteko loturak sendotu dira, eta, aldi berean, ezagutzen zirkulazioa, ikasleen mugikortasuna eta prestakuntza eta ikerketa proiektu komunaren egituraketa erraztu dira.

Unibertsitate-sareak sortzea eta dinamizatzea lankidetzaren funtsezko zutabea da. Euroeskualdeak bideratzaile gisa jarduten du, eragile gakoak identifikatzen eta elkartzen ditu, elkarren ezagutza, esperientzien trukea eta ekimen berrien agerpena errazten duten tresnak eta baliabideak eskainiz. Arreta berezia jartzen zaio lankidetzarako ikerketa- eta prestakuntza-proiektuen garapenari, bereziki **graduak eta masterreko titulazio bikoitzei** dagokionez, bai eta euroeskualde mailako **ikerketa-sare egonkorak finkatzeari** ere.

2.4.2 Euroeskualdeko beka

Ekimen hau 2015ean sortu zen eta Akitania-Berriko, Euskadiko eta Nafarroako unibertsitateetako ikasle eta doktoregaiei hilean 300 €-ko beka eskaintzen die, hiru lurraldeetako batean mugikortasun akademikoa gauzatzeko. Horrela, euroeskualde barruko ikasleen mugikortasuna sustatzea du helburu egitasmoak, hurbileko nazioarteko mugikortasunean sakonduz.

2025 ekitaldian, esleipenak egiteko batzordea Bordelen bildu da, eta 61 ikasle hautatu dira, guztira 170 hilabeteko dirulaguntzak bermatuz.

Hautagaitzak uztailaren 1etik urriaren 1era zabaltzen dira.

IKASLEEN BANAKETA			
ZENTROA	ONURADUNAK	HILABETEAK	ZENBATEKOA
Bordeaux Sciences Agro	3	6	1 800 €
Arts et Métiers Bordeaux Talence Campusa	4	14	4 200 €
ESTIA	13	26	7 800 €
Bordeaux Montaigne Unibertsitatea	4	8	2 400 €
Bordeleko Unibertsitatea	6	21	6 300 €
Paueko eta Aturriko Herrialdeetako Unibertsitatea	11	31	9 300 €
Deustu Unibertsitatea	6	27	8 100 €
Nafarroako Unibertsitate Publikoa (UPNA)	5	10	3 000 €
UPV / EHU	9	27	8 100 €
Total	61	170	51 000 €



Euroeskualdeko beka

Doktoregaiei zuzendutako bekari dagokionez, bederatzi doktoregaiei esleitu zaie ikerketa-egonaldietan edo kotutoretza-kontratuetan laguntzeko beka, guztira 28 hilabeteko sari eskainiz. Euroeskualdeak finantzaturako doktoretza-bekek hainbat arlotako tesiak lagundu dituzte, hala nola zientzia biomedikoak, historia, zuzenbidea, ingeniariaritz mekanikoa eta sistema informatikoak.

Ikerketa-proiektu horiek, asko kotutoretza bidez garatuak, puntako gaiak jorratzen dituzte hainbat sektoretako ikerketan: material hibridoak eta bioteknologia, mugaz gaindiko dinamika eta kultura, hezkuntza eta sorkuntza artistikoa, arkeologia eta osasun-ikerketa, eta endekapenezko gaixotasunei buruzko azterlanak, besteak beste. Bekek funtsezko ezagutza zientifikoak garatzen eta egungo gizarte-gaiak aztertzen laguntzen dute.

Eskaerak urte osoan daude zabalik doktoretza-programarako.

2.4.3 Mugaz gaindiko uda ikastaroak

Euroeskualdeak **Mugaz Gaindiko Uda Ikastaroen laugarren edizioa** antolatu du 2025ean. Ekitaldi hori euroeskualdeko unibertsitateen arteko lankidetzaren mugarri bihurtu da, eta **700 parte-hartzaile** inguru bildu ditu ekitaldi honetan. Hautatutako gaietan diziplina ugari landu dira –komunikazioa, zuzenbidea, ekonomia eta enpresa, hizkuntzalaritza eta literatura, giza eta gizarte zientziak – mugaz gaindiko ikuspegiari erantzunez.

Euroeskualdeko herritarrei zabaldutako ikastaro horien helburua unibertsitateek arlo ekonomikoan eta sozialean eta koherenteagoa den espazio komun bat eraikitzeak duten zeregin aktiboa balioestea da, Europako mugaz gaindiko gainerako eskualdeetan bezalaxe.

2.5 Europako proiektua

2.5.1 LANEAN

LANEAN proiektua AFOMEF POCTEFA deialdiaren esparruan hautatu da eta **mugaz gairako enplegurako eremu arinagoa, inklusiboagoa eta irisgarriagoa** finkatzea du helburu. Bazkideek partekatzen duten asmo bati erantzuten dio: Akitania-Berriaren, Euskadiren eta Nafarroaren artean benetako enplegu-arro komun bat sortzea, mugaz gairako lurraldeetako langileek, enpresek eta erakundeek dituzten zailtasunei irtenbide zehatzak emanez. LANEAN proiektuak oztipoak ezabatzea eta mugaz gairako ibilbide profesionalak sinplifikatzea du xede, hain zuzen ere.

Proiektua honako hiru ardatz egituratzailetan oinarritzen da:

- **Mugaz gairako lan-merkatuaren diagnostiko partekatua** egitea.
- Enpleguaren **eragile instituzionalen sare iraunkor bat** sortzea eta dinamizatzea.
- **Informazio- eta laguntza-zerbitzu komunak** garatzea, besteak beste, **Enplegu Egunak – Mugaz Gairako Informazio Jardunaldiak**, zeina proiektuaren barruko ekintza esanguratsu bihurtu baita.

Proiektua 2025eko maiatzean abiarazi da eta Akitania-Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdea buru duen partzuergo batek zuzentzen du eta mugaren bi aldeetako bazkide operatiboek partaidetza du, hala nola: Akitania-Berriko France Travail, Cap Emploi eta Mission Locale Pays Basque erakundeak; LANBIDE, Bidasoa bizirik agentzia eta Gipuzkoako Foru Aldundia.

Egitasmoak enpleguan, fiskalitatan, gizarte segurtasun eta langileen eskubideen babesean eskumena duten bazkide elkartuen sare zabal bat ere badu, honako erakunde hauek osatuta: CD64, CARSAT, CPAM, DDETS, DDFIP64, URSSAF, SNE, Nafarroako Foru Ogasuna, Gipuzkoako Ogasun eta Finantza Departamentua, INSS eta SEPE-EURES.

Abian jarri eta lehen hilabeteetatik hasita, bazkideek ekintza zehatzak egin dituzte proiektuaren hiru ardatzei erantzunez.

Jarduera esanguratsuen artean, **Enpleguaren Mugaz Gairako Lehen Foroa** antolatu da Irungo FICOBAn. Ekitaldi horrek 180 lanpostu inguru eskaintzen dituzten eskualdeko 50 enpresa baino gehiago bildu ditu eta 600 parte-hartzaile baino gehiago elkartu. Dozenaka mahai jarri dira elkarriketak egiteko eta hautagaitzak entregatzeko; dinamika horrek agerian utzi du mugaz gairako lan-merkatuaren bizitasuna eta mugaren bi aldeetako talentuaren eta aukeren arteko lotura zuzena.

Aldi berean, **Empleo Egunak Mugaz Gairako Informazio Jardunaldien 3.** Edizioa antolatu da azaroaren 17an eta 18an Euroeskualdearen egoitzan. Mugaz gairako enplegu arroko langileentzat eta enpresentzat ezinbesteko hitzordu bihurtu da jardunaldi hori, eta 14 administrazio eskudun bildu dira mugaz gairako langileen eskubideei eta betebeharrak buruzko informazio argia, zuzena eta pertsonalizatua emateko.



Bi egun horietan 120 pertsona baino gehiago artatu dira eta banakako 270 elkarriketa egin dira, mugaz gairako benetako zerbitzu publikoa eskaintzen duen leihatila bakarreko formatuan. Landutako gai nagusiak erretiroa (eskaeren % 58), fiskalitatea (% 38), gizarte segurtasuna eta kotizazioak izan dira.

Erabiltzaileei emandako zerbitzuaz gain, Empleo Egunak jardunaldia administrazioen arteko koordinazioarako gune bakarra ere bada. Bertan, erakundeetako eragileei beren ezagutzak trukatzeko eta eguneratzeko eta beren praktikak bateratzeko aukera izaten dute, mugaz gairako egoeri erantzun koherenteagoak eta koordinatuagoak emateko.

Enpleguaren Mugaz Gairako Foroak eta Empleo Egunak jardunaldiak argi erakusten dute LANEAN proiektuko bazkideen asmo komuna: informazioa eskuragarriago jartzea, mugaz gairako ibilbide profesionalak laguntzea eta lurraldeko mugikortasuna eta enplegu aukerak geldiarazten dituzten oztipo administrazioak murriztea.



LANEAN proiektuaren % 65 Europar Batasunak finantzatzen du, Interreg VI-A Espainia-Frantzia-Andorra Programako AFOMEF POCTEFA deialdiaren bidez (POCTEFA 2021-2027). POCTEFAren helburua Espainiaren, Frantziaren eta Andorraren arteko mugaren integrazio ekonomiko eta soziala indartzea da.



LANEAN



Empleo Egunak



3.1

Lurraldearen dinamizazioa

3.1.1

Lurraldearen behaketa

2025 ekitaldian, **lurraldearen behaketa** sakontzeko saiakera egin da. Euroeskualdea INSEE, NASTAT eta EUSTAT **estatistika-zerbitzuekin** lankidetzan egindako lanean oinarritu da mugaz gaindiko eremuko estatistika-atari bat sortzeko eta aurreko ekitaldietan hasitako lankidetzaren dinamika horrekin jarraitu nahi izan du urte honetan. Abiatutako lan horretan sakontzeko, lurraldean sortzen ari diren proiektu eta atari estatistikoen arteko sinergiak garatu dira.

Ildo horretan, **DATAPASS** proiektua deituriko hautagaitza bat prestatu da POCTEFA deialdi barruan, mugaren bi aldeetako bazkideekin batera (hirigintza agentzia, estatistika zerbitzuak, etab.). DATAPASS proiektuaren helburua Pirinioetako mugaz gaindiko eremuko datu bateratuen gabezia konpontzea da, funtsezko datuak (etxebizitza, demografia, lurzorua, zerbitzuak) bilduko dituen behatoki komun bat sortuz. Proiektuak tresna eta azterketa partekatutako eskaintzen ditu erronka komunei aurre egiteko politika publiko eraginkorragoak babesteko, mugaz gaindiko lankidetzaren berritzaile mota honi esker.

Horrez gain, mugaz gaindiko dinamika behatzeko eta datuak trukatzeko Europako erreferentziazko hainbat ekitalditan aktiboki parte hartu du Euroeskualdeak. Besteak beste, Europako Batzordearen Ikerketa Zentro Bateratuak (JRC ingelesezko siglen arabera) antolatutako «Measurement of Flows Across the Internal Borders of the EU» deituriko tailerrean parte hartu du, non ikertzaileak, datu-ekoizleak eta arduradun politikoak bildu baitira. Ekitaldi honetan, Euroeskualdeak mugaz gaindiko behaketari eskainitako aurkezpen bat egin du. Bertan, erronkak, egungo mugak eta oztopo metodologikoak nabarmendu dira, baita euroeskualdeko fluxuei buruzko datuen bilketa eta azterketa hobetzeko proposamen zehatzak ere. Egindako ezagutza-trukeak soluzio berritzaileetan zentratu dira, estatistika tradizionaletatik hasi eta datu-iturri berrien erabilerraino -hala nola telefonia mugikorretik edo sare sozialetatik datozenak-, mugikortasuna hobeto ulertzeko eta mugaz gaindiko bizi-espazioen garapenean laguntzeko.

Azkenik, Euroeskualdeak «Enhancing data sharing and harmonisation in EU cross-border regions» jardunaldian parte hartu du. Bileran hori **Bruselan** antolatu da mugaz gaindiko behatokiekin eta Europako Batzordearen zerbitzuekin (**EUROSTAT, JRC eta DG REGIO**). Jardunaldi horri esker, mugaz gaindiko langileei buruzko datuak biltzearen eta aztertzearen arloan egindako aurrerapenei eta ateratako ikaspenei buruzko iritziak trukatu ahal izan dira, baita lurraldeen arteko datuen harmonizazioa eta alderagarritasuna hobetzeko aukera ematen duten faktoreei buruzkoak ere. Ekitaldi honetan, Euroeskualdeak bere esperientzia aurkeztu du **EMPLEO proiektuaren** esparruan, mugaz gaindiko lan merkatuaren ezagutza indartzen eta mugikortasun profesionala errazten zentratuta. Truke horiek agerian utzi zuten Europako lankidetzaren, truke metodologikoaren eta irtenbide komunak bilatzearen garrantzia, datu fidagarriagoak, erabilgarriagoak jasotzeko eta horiek erabaki publikoak hartzeko zuzenean erabili ahal izateko.



Enhancing data sharing and harmonisation in EU cross-border regions

3.2

Europako proiektuak

3.2.1

TRANSFERMUGI



TRANSFERMUGI proiektua AFOMEF POCTEFA deialdiaren esparruan hautatu da 2025ean eta Euroeskualdeaz gain mugaren bi aldeetako mugikortasuna antolatzen duten agintari guztiak biltzen ditu: Eusko Jaurlaritza, Akitania-Berria Eskualdea, Pays Basque-Adour Mugikortasunerako Sindikatua, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza eta Gipuzkoako Foru Aldundia.

TRANSFERMUGI proiektuak eskaintza erakargarriagoa sortzea du helburu, bereziki egungo trenbide-eskaintza handituz, zerbitzu publikoen arteko loturak hobetuz eta tarifak eta bidaia-modalitateak sinplifikatuz. Helburu horiek lortzeko, halaber, Donostia eta Akize artean zuzeneko tren zerbitzu berri bat sortu beharko da, 2030erako. Garraio publikoko zerbitzuak hobetzea eta autoaren erabilera murriztea da epe luzera helburua.

Proiektua bost ardatz nagusiren inguruan egituratzen da:

- **Errepide eta trenbide bidezko garraio publikoko sareen konektagarritasuna hobetzea** mugaren bi aldeetan.
- **Mugaz gaindiko garraio publikoaren eskaintza optimizatzea**, tren-azpiegiturei eta trafikoari buruzko azterlanak eginez.
- **Garraio-aldaketarako geltoki multimodal estrategikoak egokitzea**, irisgarritasuna eta intermodalitatea indartzeko.
- Bidaia-esperientzia hobetzeko **berrikuntza teknologikoak** aplikatzea.
- Bidaiarientzat zein merkantzientzat mugikortasun jasangarriagoa erraztuko duten **esperimentazioak egitea**.

Erdietsitako lorpenak nabarmenak dira, besteak beste, TXIK TXAK 15 linea erregularra Hendaiako erdigunetik Irungo erdialderaino luzatu da.

3.2.2

Resilient borders

2025ean hautaturiko **Resilient Borders** proiektuak Donostia eta Baiona arteko etorkizuneko trenbide zerbitzu publiko baterako oinarriak ezartzen ditu. Ekintza pilotu honen bidez, bide-orri partekatu bat ezarri nahi da, euroeskualdeko erakundeen arteko lankidetzaz indartu eta mugaz gaindiko eremuaren planifikazioan erabakiak hartzeko ikuspegi koordinatua garatzeko. Egitasmoaren asmo nagusia epe luzera mugaz gaindiko trenbide-mugikortasunaren eskaintza arina, fidagarria eta integratua izateko beharrezko baldintzak sortzea da.

Proiektu pilotu honek **hiru helburu nagusi** ditu: lehena **mugaz gaindiko trenbide-mugikortasunaren egungo egoeraren diagnostiko partekatua egitea** eta erronka eta aukera nagusiak identifikatzea da; bigarrena, **maila anitzeko gobernantza indartzea eta egituratzea**, etorkizuneko mugaz gaindiko garraio zerbitzuen garapenean eta ustiapenean lagungarri izan dadin; eta azkena, erabakiak hartzeko prozesuetan, **eskualdeko, estatuetako eta tokiko eragileen zeregina eta parte-hartzea argitzea**, koordinazio gardeneta eta konpromiso instituzional iraunkorra bermatzeko.

Ekintza pilotu honek hainbat emaitza egituratzaile ekarri ditu. Batetik, trenbideko mugikortasunaren egungo egoera modu bateratuan aztertzea ahalbidetu du, eta epe labur, ertain eta luzerako konponbideak identifikatu ditu, mugaz gaindiko konektagarritasuna hobetzeko. Proiektuak, halaber, indartu egin du mugaz gaindiko gobernantza-organoen zeregina, administrazioen arteko alerta-mekanismo eta bideratzaile gisa. Azkenik, sortutako lantaldeei esker, alde interesdunen arteko elkarrikerak sakondu ahal izan da, 2026an hitzarmen indartu bat adosteko eremua prestatuz.



Egitasmo honek proiektutik harago jarraituko duen gobernantza jasangarriko prozesu bat egonkortu du, interoperabilitate tekniko, zerbitzuen eta ordutegien koordinazioa, material gurgildunaren plangintza eta mugaz gaindiko inbertsio eta finantzaketa aukerak aztertzen dituzten gaikako lan-taldeek osatuta. Gisa honetako egiturak funtsezko oinarria dira epe luzerako ikuspegia zein etorkizuneko Donostia-Baiona mugaz gaindiko trenbide-zerbitzuarekiko konpromiso iraunkorra bermatzeko.

Azkenik, Resilient Borders programaren amaierako ekitaldian parte hartu du Euroeskualdeak. AEER (Europako Mugako Eskualdeen Elkarte, ingelesezko siglen arabera) eta MOT (Mugaz Gaindiko Misio Operatiboa, frantsesezko siglen arabera) erakundeek Gorizian antolatutako ekitaldiari esker, proiektu pilotuen elkartruke sakona eta tokiko azterketakasuaren aurkezpena egin du Euroeskualdeak, krisialdi testuinguruetan ere, mugaz gaindiko gobernantzaren eta lurralde-plangintzaren jardunbide egokiak eta esperientziak trukatzeko lagunduz.



Resilient Borders



Mugaz gaindiko gobernantza eta euroeskualdearen kudeaketa aurreratua

2025ean, Akitania-Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdeak presentzia eta **posizionamendua indartu ditu Europa mailan**, hainbat kontsulta-prozesu, lantalde eta ekitaldi estrategikotan parte hartuz eta mugaz gaindiko lurraldeak Europako integrazioaren benetako laborategi direla ikusaraziz.

Horrez gain, **Schengen Muga Kodeak mugaz gaindi duen inpaktuaren ebaluazioan** parte hartu du erakundeak, mugetako kontrolak berrezartzeak zuzenean eragiten baitio bere jardun-eremuari. Mugetan hartutako neurriek euroeskualdeen kohesioan, Europaren integrazioan eta lurraldearen garapen sozioekonomiko eta iraunkorrean dituzten ondorioak aztertzea da abiarazitako ekimenaren helburua. Bere parte-hartzearen bidez, Euroeskualdeak agerian utzi du mugetan hartzen diren erabakiek herritarren eguneroko bizitzan eta mugaz gaindiko bizitza-arroen funtzionamenduan eragin zehatzak dituztela.

Testuinguru horretan, **erakundeak mugaz gaindiko oztopoak identifikatu, aztertu eta dokumentatzeko lan egin du**, bere aginte organoek 2021ean baliozkotutako estrategiaren eta lan-metodologiaren baitan. Egitasmo egituratu horren helburua mugako lurraldeetako eragileen eta herritarren jarduna eta eguneroko bizitza zailtzen duten oztopo juridiko, administratibo edo operatiboak azaleratzea da. Ekimena erabat lerrotatuta dago «Mugaz gaindiko gobernantza eta Euroeskualdearen kudeaketa berritzailea» ardatz estrategikoarekin eta bat dator BRIDGEforEU Europako erregelamenduen helburuekin. Tokian tokiko ekarpenak, erakunde-kideen trukeak eta sortzen ari diren Europako tresnei egindako ekarpena bateratuz, Euroeskualdeak sendotu egin du tokiko errealitatean eta Europako erabaki-esparruen arteko lotura gisa duen eginkizuna.

Horrez gain, Euroeskualdea sakon inplikatu da Mugaz Gaiandiko Misio Operatiborako (MOT frantsesezko siglen arabera) Lantaldean, **2027tik aurrerako Interreg programen etorkizunari buruzko jarrera bateratua lantzeko**. Lan kolektibo hori Frantziako mugak ordezkatzan dituzten MOT sareko berrogei bat kiderekin batera egin da eta bi helburu nagusi ditu: batetik, mugaz gaindiko gobernantzarako Europako tresnen bilakaerak (BRIDGEforEU erregelamendua onartzea, ACROSS behaketarako Europako plataforma garatzea) aztertzea, eta bestetik, etorkizuneko urte anitzeko finantza-esparruari eta kohesio-politikari buruzko negoziazioak bideratzea.


Ekitaldi honetan, Europako lurralde-lankidetzari babes handiagoa ematen lagundu du Euroeskualdeak, mugaz gaindiko lurraldeek Europaren integrazioan duten gidaritza gogoraraziz. Egindako ekarpenek azpimarratu dute beharrezkoa dela Interreg-erako zuzkidura espezifiko eta anbiziotsua mantentzea; maila anitzeko gobernantza eta baterako proiektuak zaintzea eta mugaz gaindiko lurraldeen aniztasuna hobeto aitzortzea, ikuspegi homogeneo batetik haratago.

Euroeskualdeak **LLET iberikoen III. topaketan** ere parte hartu du. Truke estrategiko horri esker, berretsi egin da LLET egiturek berrikuntza instituzionalerako eta hurbiltasun demokratikorako laborategi gisa duten zeregina, funtsezkoak baitira lurralde-kohesiorako, mugikortasunerako eta mugako eremuen garapen sozioekonomikorako. Jardunaldia amaitzeko, baterako adierazpen bat egin da, LLETek Europako politiketan, bereziki Interreg programen esparruan, duten eginkizun operatiboa gehiago aitzortzeko eta indartzeko.



European Cross-Border Platform (ECBP)

Amaitzeko, Euroeskualdeak **Europako Mugaz Gaiandiko Plataformaren (ECBP ingeleseko siglen arabera) Urteroko Bileran** parte hartu du. Biler horrek mugaz gaindiko lankidetzan diharduten eragile europar guztiak biltzen ditu, tokiko agintarietatik hasi eta NAEN Euroeskualderaino. Ekitaldi honetan, NAEN Euroeskualdeak egungo bilakaera politikoa, mugaz gaindiko mugikortasunerako oztopo iraunkorak eta tokian bertan garatutako irtenbide zehatzak azaleratzen lagundu du. Euroeskualdeko eremuaren zerbitzura dagoen LLET erakundearen balio erantsiari buruzko esperientzia ere partekatu da bertan, mugaz gaindiko politika publikoen koordinaziorako, bideragarritasunerako eta koherentziarako tresna gisa. Ekarpen horien bidez, Europako mugaz gaindiko lankidetzan erreferentziazko eragile gisa duen zeregina baieztatu du Euroeskualdeak, lurraldearen esperientzia zehatzetik abiatuta Europako hausnarketa estrategikoak elikatzeko eta mugako eremuetako herritarren, enpresen eta administrazioen zerbitzurako irtenbide operatiboak sustatzeko gai dena.





Mendebaldeko Eremu Funtzionala
Área Funcional Oeste
Aire Fonctionnelle Ouest

Interreg
POCTEFA



Cofinanciado por
la UNIÓN EUROPEA
Cofinancé par
l'UNION EUROPÉENNE



5.1 Lurraldeak eraldatu eta europa hurbiltzen duten proiektuak

Mendebaldeko Eremu Funtzionalaren koordinatzailea den Euroeskualdeak **AFOMEF** proiektua garatzen jarraitu du 2025ean. Proiektuak maila anitzeko kudeaketan eta gobernantzan sakontzea du xede, **Lurralde Estrategia Integratua** hedatuz, lurraldea dinamizatuz eta estrategiako proiektu egituratzaileak abiaraziz.

Dokumentu ireki eta ebolutibo gisa aurkeztu den estrategiak lurraldearen erronka eta lehentasunei erantzuten die POCTEFA 2021-2027 programazio aldi osoan. Arian-arian aplikatuz doazen ekintzek egitasmoaren jarraipena bermatzen dute, eta plangintza estrategikoa bera beharren arabera doitzen da, adostutako proiektuak eraginkortasunez gauzatzen direla ziurtatuz.

Ekitaldi honetan zehar, Mendebaldeko Eremu Funtzionalako lantaldeak AFOMEF POCTEFA proiektuen deialdia eta hautapen prozesua koordinatu ditu. Prozesu hori martxoan amaitu zen, AFOMEFen Gidaritza Batzordeak, POCTEFA programazio-aldi honetarako proposatutako sei ekimenak onartu zituenean, **enplegu, mugikortasun eta eleaniztasun** arloetan. Hurrengo taulan, hautatutako proiektuei buruzko informazioa aurkezten da:

PROIEKTUAK			BAZKIDEAK			AURREKONTUA	
Gaia	Izena	Helburuak	Izena	Egoera	Lurraldea	Proiektuaren Aurrekontua	Onartutako Dirulaguntza
LANA	LANEAN	Akitania Berriko, Euskadiko eta Nafarroako lurraldeen artean enplegu-arro integratu bat garatzea, mugaz gaindiko enpleguaren ekosistemako eragilean arteko koordinazioa eta ezagutza hobetuz.	Akitania-Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdea	Proiektuburua	Consortium	2.724.013 €	1.770.608,50 €
			France Travail	Bazkideak	Akitania-Berria		
			Cap Emploi	Bazkideak	Akitania-Berria		
			Mission Locale Pays Basque	Bazkideak	Akitania-Berria		
			LANBIDE	Bazkideak	Euskadi		
			Bidasoa aktiva Bidasoa bizirik	Bazkideak	Euskadi		
			Diputación Foral de Gipuzkoa	Bazkideak	Euskadi		
MUGIKORTASUNA	TRANSFERMUGI	Mendebaldeko Eremu Funtzionalen mugaz gaindiko mugikortasuna hobetzea, pertsona eta merkatizientzako soluzio iraunkor eta eskuragarriak proposatuz, eta oztopo administratibo eta teknikoak gaindituz, mugaren bi aldeetan konektagarritasun eraginkorra segurtatzeko.	Euskal Trenbide Sarea (ETS)	Proiektuburua	Euskadi	5.950.060 €	3.867.539 €
			Eurorégion Akitania-Berria Euskadi Navarre	Bazkideak	Consortium		
			Autoridad Territorial de Transporte de Gipuzkoa (ATTG)	Bazkideak	Euskadi		
			Syndicat des Mobilités Pays Basque-Adour	Bazkideak	Akitania-Berria		
			Diputación Foral de Gipuzkoa Departamento de Movilidad, Turismo y Ordenación del Territorio (GFA/DFG)	Bazkideak	Euskadi		
	MUGAZIKLO	Mugaz gaindiko mugikortasun jasangarria, interkonektatua eta multimodala sustatzea Gipuzkoak, Nafarroak eta Pirinio Atlantikoei partekatzen duten lurraldean, bizikleta sustatuz garraiobide aktibo eta ingurumena errespetatzen duen garraiobide gisa.	NASUVINSA	Proiektuburua	Akitania-Berria	5.978.753 €	3.886.189 €
			Conseil départemental 64 - Service vélo	Bazkideak	Akitania-Berria		
			Diputación Foral de Gipuzkoa Dirección de Transición Ecológica	Bazkideak	Euskadi		
			Syndicat des Mobilités Pays Basque-Adour	Bazkideak	Akitania-Berria		
			Bidasoa aktiva Bidasoa bizirik	Bazkideak	Euskadi		

PROIEKTUAK			PARTENAIRES			AURREKONTUA	
Gaia	Izena	Helburuak	Izena	Egoera	Lurraldea	Proiektuaren Aurrekontua	Onartutako Dirulaguntza
ELEANIZTASUNA	HEZHI	Mugaz gaindiko eremuko hizkuntzen irakaskuntzan eta ikaskuntzan eleaniztasuna sustatzea, mugaren bi aldeetako komunitateen arteko hizkuntza oztipoak murrizteko.	Akitania-Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdea	Proiektuburua	Consortium	3 099 609 €	2 014 746 €
			Eusko jaurlaritzza-Gobierno Vasco	Bazkideak	Euskadi		
			Gobierno de Navarra	Bazkideak	Nafarroa		
			Universidad del Pais Vasco Euskal Herriko unibertsitatea	Bazkideak	Euskadi		
			HUHEZI Mondragon unibertsitatea	Bazkideak	Euskadi		
			Université Bordeaux Montaigne	Bazkideak	Akitania-Berria		
			Euskal Herriko ikastolak	Bazkideak	Euskadi		
			Seaska	Bazkideak	Akitania-Berria		
			Euskal kultur erakundea Institut culturel basque	Bazkideak	Akitania-Berria		
			Rectorat/Éducation nationale, KASBI, Diputacion de Gipuzkoa, Larrun Eskola, CD64	Bazkide elkartuak			
	EUSGUNEAK	Euskadi, Nafarroa eta Pirinio Atlantikoen artean euskararen erabilera sustatzea eta hizkuntza oztipoak murriztea, erakunde publikoen arteko lankidetzak indartuz, eta iragarritasuna eta euskararen ikaskuntza hobetuz.	Hizkuntza Politika Saila (Eusko Jaurlaritzza-Gobierno Vasco)	Chef de file	Euskadi	2 560 002 €	1 664 001 €
			Habe	Bazkideak	Euskadi		
			Euskarabide	Bazkideak	Nafarroa		
			OPLB-EPP	Bazkideak	Akitania-Berria		
	SAREBIDE	Proiektuak euskarazko hedabideetako hizkuntza oztipoa gainditu nahi du; horretarako teknologia komunak, adimen artifiziala barne, integratuko dituen eraldaketa digitala sustatuz eta mugaz gaindiko lankidetzak teknologikoko sare bat sortuz, edukietarako sarbidea zabaltzeko eta publiko berriengana heltzeko.	Berria	Chef de file	Euskadi	2 594 450 €	1 686 392 €
			Euskal irratia	Bazkideak	Akitania-Berria		
			Kanaldude	Bazkideak	Akitania-Berria		
			Hamaika telebista - Bizkaia	Bazkideak	Euskadi		
			Hamaika telebista - Nafarroa	Bazkideak	Nafarroa		
			Hamaika telebista - Gipuzkoa	Bazkideak	Euskadi		
			Elhuyar	Bazkideak	Euskadi		
			Euskalerrria irratia	Bazkideak	Nafarroa		

Proiektuen onarpena egituratutako prozesu baten baitan gauzatu da: lehenik Gidaritza Batzordeak eman behar die oniritzia eta ondoren, POCTEFAko Programazio Batzordeak onartu eta berretsi egin behar ditu. Gobernantza-organo guztiek prozesu horretan agertu duten inplikazio aktiboa, faktore erabakigarria izan da emaitzaren erdiespenean. Aurrekaririk gabeko lurralde mailako mobilizazio bati eta lan-dinamika eraginkorrek abian jartzeari esker, proiektuak erabat lerrotatu dira Lurralde Estrategia Integratuaren helburu estrategikoekin. Bat etortze horri esker, **AFOMEFi esleitutako EGEF funts guztiak esleitu ahal izan dira, hots, 14,8 milioi euroko laguntza bideratuko da lurraldeko proiektuetara, guztizko inbertsioa 23 milioi euro ingurukoa izanik.**

2025eko martxoan proiektuak onartu ondorengo hilabeteetan, AFOMEFeko lantaldearen jarduerak batez ere Mendebaldeko Eremu Funtzionalaren kudeaketara eta onartutako sei proiektuei laguntzera bideratu dira eta POCTEFAren Idazkaritza Bateratuaren bitartekaritza eta solaskide lanak ere gauzatu dira.

Horrez gain, AFOMEF eremuaren eta bere proiektuen hedapen zabala bermatzeko lan estrategikoa egin da bai sare sozialetan, AFOMEFen LinkedIn-eko profilaren bidez, bai www.afomef.eu webgunearen eta mugaren bi aldeetako prentsaren bidez ere.

Ikusgarritasun estrategia horrek Mendebaldeko Eremu Funtzionalako ekimenen presentzia eta inpaktua indartzea ahalbidetu du, bai lurralde mailan, bai Europa mailan. AFOMEFen proiektuak bereziki nabarmendu dira tokiko komunikabideetan, bai eta Europako hainbat forotan ere, hala nola RegioFlash eta Border Focal Point plataformetan.



AFOMEF proiektuen aukerapena



INGURA-ren aurkezpena



LANEAN feria




Empleo Egunak



SAREBIDE prentsaurrekoa




AFOMEF prentsaurrekoa



2021-2027 Plan Estrategikoko adierazleen jarraipena

Adierazleak	2027rako helburua	2025an lortutako balioak	Lorpen-maila					
			2021	2022	2023	2024	2025	2027
Lantaldeetan parte hartzen duten eragileak	126	116						% 92
Lantalde kopurua	10	22						% 220
Lantaldeen bilera kopurua	150	133						% 89
Lantaldeek garatutako ekimen kopurua	50	35					% 70	
Lantalde bat baino gehiago inplikatzeko duten ekimen garatu kopurua	5	2		% 40				
Identifikatutako oztopo kopurua	20	18						% 90
Garatutako lankidetzako estrategiko kopurua eta esparru hitzarmena	20	20						% 100
Finantzatutako proiektu kopurua	300	141			% 47			
Proiektu deialdietan jasotako eskaera kopurua	550	328				% 60		
Euroeskualek finantzatutako proiektuetan parte hartzen duten kideen kopurua	1000	556				% 56		
Burututako finantziarioaren ehunekoa	% 80	% 63					% 78	
Euroeskualek finantzatutako proiektuen finantzaketaren bolumena	10.000.000 €	6.031.722,53 €				% 60		
Palanka-efektuko inbertsio bolumena Euroeskualek finantzatutako proiektuentzat	20.000.000 €	13.991.111,51 €				% 70		
Euroeskualeko bekaren onuradun kopurua	500	393					% 79	
Europako funtsak erakarriko dituzten proiektu kopurua	14	12					% 86	
Bilduak izan diren Europako funtsen bolumena	7	6					% 86	
Egindako komunikazio ekintzen kopurua	36	32					% 89	
Langileentzako informazio kopurua	600	490					% 82	
LLETak antolatutako hitzaldi eta ekitaldi kopurua	60	38				% 63		
Abian ezarri diren parte-hartze prozesu kopurua	15	11					% 73	
LLETaren agerpena hedabideetan	350	710						% 203
Parte hartze prozesuetan jasotako ekarpen kopurua	200	641						% 321
LLETak parte hartzen duen ekitaldi eta hitzaldi kopurua	30	238						% 793
Sare sozialetako harpidetun kopurua	5.250	5.980						% 114
Bisita kopurua LLETaren webguneetara	100.000	241.415						% 241
Jasotako aitorzak	5	2		% 40				




2025eko aurrekontua **2.567.000 eurotan** orekatu da sarrera zein gastuetan. Aurrekontuaren exekuzioari dagokionez, gastuak **2.172.296,05 €**-koak izan dira, eta sarrerak **1.979.502,34 €**-koak.

Kapitalizatutako soberakinak xurgatuko du **+528.654,64 €**-ko defizitaren gastua, ekitaldiaren amaieran.

Akitania-Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdeko LLETaren aurrekontuak ez du ez zorrik, ez mailegurik erregistratu 13. urtez jarraian.

2025KO GASTUAK			
Gastu mota	Aurreikusitako gastuak	Egindako gastuak	% Exekutututako / aurreikuspena
Izaera orokorreko gastuak	732.292,67 €	509.155,46 €	% 70
Langile-gastuak	451.830 €	397.511,35 €	% 88
Ordaindutako dirulaguntzak	1.320.000 €	1.258.318,04 €	% 95
Amortizazioa	5.658,60 €	5.658,60 €	% 100
bertsioen atalera eginiko transferentziak (agindutako eragiketak)	218,73 €	-	-
Inbertsio-gastuak	57.000 €	1.652,60 €	% 3
GUZTIRA	2.567.000,00 €	2.172.296,05 €	% 85

2025KO DIRU-SARRERAK			
Diru-sarrera mota	Aurreikusitako diru-sarrerak	Jasotakoak	% Exekutututako / aurreikuspena
Eskualdeen ekarpena	1.650.000 €	1.650.000 €	% 100
Beste erakunde batzuen ekarpenak (POCTEFA, askotariko ordainketak...)	331.345,36 €	315.909,58 €	% 95
Transferitutako soberakinak (eskaera-eragiketa)	528.654,64 €	528.654,64 €	-
Inbertsioen etekinak	57.000 €	13.592,76 €	% 24
GUZTIRA	2.567.000,00 €	2.508.156,98 €	% 77



Urtarrila

14 MOT lantaldearen bilera - 2027 ondorengo pausoak



16 AFOMEFen aurkezpena POCTEFAren jarraipen batzordearen aurrean



21 POCTEFA ekitaldian parte hartzea, Toulousen

24 XXIII. IURA VASCONIAE Sinposioan parte hartzea

27 Mahai-ingurua FIPADOCen

Février

7 MoveS mintegian parte hartzea
Langile zaurgarrien zirkulazio askea

12 Hirigune Elkargoaren mugaz gaindiko topaketak



13 POCTEFA Impacti3 proiektuaren tailerrean parte hartzea

20 POCTEFA Pyrenart II proiektuaren tailerrean parte hartzea

21 FAMILI'ON proiektuaren aurkezpena



24 ABENA proiektua abian jartzea



24 DOKLAB NAVARRAN parte hartzea



26 MOT lantaldearen bilera - 2027 ondorengo pausoak
26 BERTOKIN jardunaldiak



Martxoa

- 6** LANEKO – Mugaz Gaiandiko Enplegu Foroa
- 12** Tailer baten dinamizazioa TRAMPOLINE foroan
- 13**



- 14** IKT prestakuntza
- 19** ÇA COLLE AU BASQUE estrategia abian jartzea



- 20** ASKHEZI proiektuaren aurkezpena
- 20** AFOMEF proiektuaren aurkezpena
- 21** SERM Basco-landais-en gidaritza batzordea
- 25** Euroeskualdearen Lehen Batzarra



- 27** Interreg elkartearen 35. urteurrena,
- 28** Gorizia-Nova-Gorizian



Apirila

- 1** MUGALAN enplegu azoka
- 2** «Tokiko garapen ekonomikorako estrategiak eta mugaz gaindiko lankidetzarako: lurraldeak elkartuz» ekimenean parte hartzea Sevilla



- 4** Doneztebeko enplegu zerbitzuaren inaugurazioa
- 11** Euroeskualdearen Bigarren Batzarra

Maiatza

- 15** REGIO DGren «Crossborder flows data» tailerrean
- 16** parte hartzea



- 22** Navarra Innovation Week-en parte hartzea
- 26** PIRENAEUS II proiektuaren aurkezpena



Ekaina

3 LLET iberiarren topaketak



6 Oztopoak ebazteari buruzko hitzaldia

«Beyond borders breakfast» jardunaldian

13 Nekazaritzako elikagaien topaketa EUROESKUALDEKO

MERKATARITZAren esparru-hitzaermen barruan

17 ReTPIM kongresua



19 RESILIENT BORDERS konferentzia

24 Stand bateratua SUNNY SIDE OF THE DOCen

26



26 FUEN konferentzian parte hartzea

27

30 Mugaz gaindiko Uda ikastaroak

Uztaila

2 Komunikazio eleanitzari buruzko uda ikastaroa

7

15 MUI jardunaldiak

24 PIRENAEUS jardunaldiak

28 Guandina Eurohiria LLETera bisita

29



Iraila

3 CESER misioa

11 RESILIENT BORDERS lantaldea

12 BEHA uda ikastaroak

16 ON.eus plataformaren aurkezpen publikoa



18 KINTONDARE proiektuarekin topaketa

24 Ikus-entzunezko sariaren aurkezpena LAU HAIZETARA foroan, SSIFF

25 UNI-GRren «BORDER STUDIES» masterrari harrera

29 CECSI konferentzia

30



30 Turismoari buruzko topaketa EUROESKUALDEKO

MERKATARITZA esparru-hitzaermenaren barruan



Urria

- 1** Robotikari eta teknologiari buruzko jardunaldiak Estian
- 3** INGURA proiektuaren aurkezpena AFOMEFen baitan
- 9** KARRIKAN ZUBIAK ekimenaren aurkezpena
- 10** Ikus-entzunezko sektorearen Euroeskualdeko topaketak Bordelen
- 10** Eragile ekonomiko eta sozialen topaketa, Herbehereetako ordezkariarekin
- 14** Euroeskualdeetako ordezkariak topaketak, Hiri eta Eskualdeen Europako Astearen esparruan (Brusela)
- 16** EDUCATION LAB proiektuaren aurkezpena
- 16** XARE jardunaldiak



- 17** MUGALAN jardunaldiak
- 21** TEIN konferentzia parte hartzea
- 22**
- 23** LANEAN enplegu azoka



- 23** DOLAREAK proiektuaren aurkezpena

Azaroa

- 1** RESILIENT BORDERS ekimenaren aurkezpena
- 13** European cross-border platform
- 14**



- 17** Mugaz gaindiko informazio jardunaldiak
- 18** Empleo Egunak



- 17** INTERREG PEER REVIEW ekimenen parte-hartzea



- 18** MUGAZIKLO proiektuaren aurkezpena
- 19** ETXEPARE Institutuaren urteurrena
- 20** PYRENART tailerraren dinamizazioa
- 24** DIASPORA jardunaldietan parte hartzea
- 26** Osasunari buruzko topaketa EUROESKUALDEKO MERKATARITZA esparru-hitzarmenaren barruan
- 27** Mugaz Gaiendiko Behatokiaren lehen topaketan parte hartzea, Bruselan
- 28**

Abendua

4 HEZHI proiektuaren aurkezpena Arnegi Luzaideko ikasleen gurasoei



Urte osoan zehar honako master hauetan esku hartzea:

Atzerriko hizkuntza aplikatuak – Bordeaux Montaigne
Unibertsitateko mugaz gaindiko proiektuen kudeaketa adarra

Bordeaux Montaigne Unibertsitatearen komunikazio publikoa
eta politikoa.

UPPAren mugaz gaindiko eta lurralde arteko lankidetzak





EUROREGION EUROESKUALDEA EURORREGIÓN

NOUVELLE-AQUITAINE • EUSKADI • NAVARRE
AKITANIA BERRIA • EUSKADI • NAFARROA
NUEVA AQUITANIA • EUSKADI • NAVARRA

euroregion-naen.eu



18 rue Leku Eder
ZI des Joncaux
64700 Hendaye

